

KONTZERTUAK SOINUENEAN

NEGUKO KONTZERUA

2015eko abenduaren 26an - 18:30etan Oiartzungo Udaletxean

ANABEL SANTIAGO

Tonada Asturiana

Anabel Santiago kantagintza asturiarreko ahots indartsuena da. Asturiasko kantaera herrikoia zati bat den tonadak, ahotsa eta gaita bildu izan dituen kantaera zaharra, gaur egun duen ordezkari nagusienera da. Andre gazte honek (Buenos Aires, 1981) tradizioaren atea pare pare ireki ditu, berrikuntza gartsu sartzeko moduan, estiloen elkarbizitza emankorra lortzeko. Urteak daramazki musika mota honen berrikuntzan lanean, bere ordezkari nagusiak izan direnak desagertuak diren ulean.

Anabel Santiago 4 urterekin Campo de Caso asturiar kontzeju menditsura joan zen. Bertan ezagutu zuen Diagmina Noval bere lehen kanta irakaslea. Hark kantatzeko trikimailu guztiak erakutsiko zizkion Cuarteto Torner taldeko partaidea zen Luis Estrada aurkeztu zion. Aurrekari horiekin, eta izugarritzko talentuarekin, 13 urterekin Asturiasko lehiaketa garrantzitsuena izanik Oviedoko Teatro Campoamor antzokian ospatzen den "Concurso Muestra de Folclore Ciudad de Oviedo" irabazi zuen. Sari hau urtero irabazi zuen 1995 eta 1999 artean. Asko dira

geroztik Asturias guztian irabazi dituen sariak. Horrek bere herrian eta handik kanpora saio ugari emateko atea ireki zizkion, entzuten zuten guztien harridura sortuz.

Tonadaren munduan sortu zuen zirrara halakoa izanik, 19 urte besterik ez zituenean Oviedoko La Corredoria auzoan kale bati bere izena eman zioten kaleen izenek tonadako abeslari handiak omentzen dituen eremuan (han daude, besteak beste, La Busdonga, Juanín de Mieres, El Maragatu edo Diamantina Rodríguez).

Bere gaztetasunari begira beste zerbait espero badaiteke ere, Anabel Santiagok hamabost urtetik gorako ibilbidea du bizkargainean. Tarte horretan ugariak dira grabatu dituen diskoak:

"*Tierra de Sueños*" (Sociedad Fonográfica Asturiana, 2001): tonada herrikoi klasikoari eskainia.



"*Al compás de la luna*" (El aguañaz, 2003): Bere abestien sortzaile moduan agertzen da disko honetan eta gaur egungo gaiak jorratzen ditu.

"*Anabel Santiago canta a Diamantina Rodríguez*" (Malas Pulgas, 2005): Azken mende erdian kantagintza asturiarrak eman duen ahots garrantzitsuena omentzen du disko honetan.

"*Desnuda*" (Galileo MC, 2007): Tonadarekin musika herrikoi modernora urbilketa berri bat egin zuen hainbat piezaren bertsio berriak egin.

"*Ahora*" (Autoproducción, 2010): Artsitaren sendotze diskoa. Anabelek abeslari, ekoizle, konposatzaile, bezala duen gaitasuna agerian geratzen da eta generoaren fusioaren inguruan heldutasun artistikoa lortzen du.

"*Con la luz de la rociada*" (Alcanzar, 2012): Héctor Bragarekin batera egindako diskoa.

"*Lanzas de Papel*" (Santo Grial, 2015): Musika eta poesiaz betetako diskoa, tangoa, pop, folk eta estilo gehiago fusionatzen dira bertan.

ETA GOIZEAN

EMANALDI DIDAKTIKOA

Makilak Euskal Dantzetan

Lekua: SOINUENEA
Tornola kalea, 6
20180 Oiartzun

Eguna: 2015-12-26

Ordua: 11:30

Arratsaldeko kontzertuaren aurretik, goizean, **Xoxote Bandako** musikariek haurrentzat saio berezia eskainiko dute. Euskal Herriko dantzetan makilak nola erabiltzen diren azalduko dute.

XOXOTE BANDA



Izena bera izan daiteke taldearen arrastoa eman dezakeen zeinu bat. Nork ez du ezagutzen Izarraitz eta era berean Xoxote mendia? Nor ez da gelditu sekula Xoxoteko aterpean atsedena eta mokadu bat hartzen?

Bertako artzain eta aterpetxekoek Xoxote eguna antolatzen dute urtean behin, eta nola ez, erromeria izaten da egun honetako muina. Eguna baliatuz zera eskatu ziguten; musika taldea osatzeko erromerian bezala jo genezan. Eta hala egin genuen; 2010-11 urteaz ari gara.

Xoxote Banda osatzen dugunok

eskarmentu handiko musikoak garella esan daiteke, aurretik dantza talde desberdinetan aritutakoak. Musika tresnen inguruan berriz mota desberdinekoak jotzen ditugu: klarineta, txirula, gaita, bonbardinoa, dultzaina, biolina, akordeoia eta perkusioa. Eta besteren bat azalduko balitz bere musika tresnarekin ziur lekua izango lukeela taldean.

Gure ibilbidea Xoxote egunean hasi bazen ere ordutik hainbat plaza eta txokotan aritu izan gara. Urteko igande goiz gehienetan Astigarragan,

Irunen, Añorgan edo Hondarribian aritzen gara jauziak jotzen eta kantatzen.

Musika eta dantza barrenean darabagu eta uste dugu nabari zaigula emanaldi bakoitzean.

Honakoan berriz, egitarau desberdin batekin azaltzen gara Oiartzunera Xoxote Bandako kideok. Plaza dantzen ordez, beste doinu batzuk izango dira lekua hartuko dutenak: Nafarroako inguru txikiak; Zuberoa eta Lapurdiko makil dantzak; Gipuzkoako hainbat doinu eta Bizkaiko jotiek, porruiek etabar.

AFARIA KONTZERTUAREN ONDOREN

Afaria Elizaldeko Ibargain elkartearen izango da, Oiartzungo Aialde kalean. Bertan musikariek egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko aukera izango da. Afaltzeko lekua gordetzeko Soinuenera deitu eta izena ematea komeni da.

Afaria + Kontzertua: 20 euro



kontzertu honen laguntzaileak:

KULTUR, JOLAS ETA KIROL ELKARTEA

ibargain
Aialde OIARTZUN